



Agindua, 2018ko irailaren 17koa, Hezkuntza sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko herri-ikastetxeetan ordezkari-organoren kideak aukeratzeko hauteskunde-prozesua zabaltzen duena.

Azaroaren 12ko 258/1996 Dekretuak, urtarrilaren 30eko 11/2007 Dekretuak aldatutakoa, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko herri-ikastetxeetan ordezkari-organoren hautatzeko eta berritzeko prozesua arautzen du.

Dekretu horiek ezartzen dutenez, ikastetxeetako ordezkari-organoren erdi biak urte bitik behin berrituko dira, txandaka.

Ordezkari-organoren kideen azken hautespena 2016-2017 ikasturteko lehen hiruhilekoan egin zen eta, beraz, 2018-2019 ikasturteko lehen hiruhilekoan egin behar da berrikuntza.

Hezkuntza sailburuari dagokio dagokion hauteskunde-prozesua burutzeko epea zabalik dagoela aldarrikatzea.

Hori dela-eta, eman zaizkidan eskumenak erabiliz, honakoa

XEDATU DUT:

1.1. artikulua.- Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko herri-ikastetxeetan, Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratuetan izan ezik, ordezkari-organoren kide batzuk, egokitzen direnak, aukeratzeko hauteskunde-epea zabalik dagoela adieraztea.

2. Hauteskunde-prozesua azaroaren 12ko 258/1996 Dekretuak, urtarrilaren 30eko 11/2007 Dekretuak aldatutakoa, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko herri-ikastetxeetan ordezkari-organoren hautatzeko eta berritzeko prozesua arautzen duenak xedatutako moduan egingo da.

2. artikulua.- Hauteskundeak 2018ko azaroaren 14 eta 16a bitartean egingo dira ikastetxe guztietan, eta ikastetxeko ordezkari-organoren berriak 2018ko abenduaren 14a baino lehen egon beharko du osatuta. Behin ikastetxeko ordezkari-organoren eratutakoan, organo horrek pertsona bat izendatuko du gizonen eta emakumeen artean benetako berdintasun eraginkorra sustatzeko hezkuntza-neurriak bultzatzen.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.- Agindu honen aurka berraztertze errekurtsoa jar diezaiokete interesdunek Hezkuntza sailburuari hilabeteko epean. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar dezakete Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epearen barruan. Kasu bietan, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian agindua argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da kontatzen epea.



Bigarrena.- Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko irailaren 17a.

Hezkuntza sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.